



Herri Asanblada deitu du Arabako JARDUN Koordinadorak

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 09/03/2025

Bertan, alternatiba iraultzailearen izaeraz, egungo estrategiaz eta maila lokaleko bizitza politikoaz hitz egingo dute.

Martxoaren 13an Herri Asanbladara hurbiltzeko deia egin du Arabako JARDUN Koordinadorak. Asanblada Hala Bedi iratiaren alboko lokalean izango da, asteazkenean, arratsaldeko 19:00tan. Bertan, alternatiba iraultzailearen izaeraz, egungo estrategiaz eta maila lokaleko bizitza politikoaz hitz egingo dute eta kezkak, grinak edota galderak ekartzeko deia luzatu dute.

JARDUN-ek "Euskal Herri langilearen alternatiba" bezala definitzen du bere burua. Tresna bezala aurkezten dute, "Euskal Herriko masa kritiko independentista eta sozialista aktibatzeko". Hainbat antolakunde barnebiltzen dituen koordinadora da, "euskal estatu independente eta sozialista erdiesteko borrokan dihardutenak". Antolakunde horiek, "adostutako minimo ideologiko amankomunetan dihardute", "era autonomoan". Azaldu dutenez, JARDUN-en lana "borroka sektorialak aurrera eramateko alternatiba integral" bezala jardutea da.

<https://eh.lahaine.org/herri-asanblada-deitu-du-arabako>